



## **Jarraitatasun-saria: MURRIZKETA BERRI BAT ETORKIZUNEAN?**

Jakin berri izan dugu Hezkuntza Sailak aztertzen ari dela murrizketa berri bat itunpeko langileentzako. Isabel Celaá-k, sailburu ohiak, egindako eskeari erantzuteko emandako informazioaren artean Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txosten bat dago. Txosten horretan, besteak beste, 2013ko iraila-abendua epealdirako gastu aurreikuspena egiten da ondorengo zehaztapena eginez: ***"En dicho cálculo, a diferencia del curso anterior, no se ha tenido en cuenta la previsión con relación a los premios de continuidad ya que se encuentra en estudio la supresión de dichos premios."***

Adierazpen hau oso larria da Hezkuntza Sailak, modu ezkutuan, beste murrizketa berri bat ezarri nahi duelako. Tamalez, aurrekariak baditugu eta oraingoan ere enpresek hitzarmenean jasotakoa ez betetzeko asmoa izango dute eta beste gatazka izateko arrisku bizia zabaltzen da.

Dagoeneko KE-k, bere hitzarmen berrirako plataforman adierazten du lan sari hau kobratuko dugula baldin eta hezkuntza administrazioak ordaintzen duen eta enpresek, beraz, ez dutela ordainduko xentimorik kontzeptu honen truke.

Eusko Jaurlaritzaren jarrera itunpeko ikastetxeetako langileekiko oso adierazgarria izan da orain arte: Soldatak ordaintzeko diru-laguntzak murriztu zituen 2010ean Zapateroren Dekretuak ezartzen zuena baino haratago joanez, 2011, 2012 eta 2013rako partida horren izozketa arautuz eta oraingoan, jarraitasun-saria kentzeko asmoa adieraziz. Eta hau, 2013ko Gabonetako ordainsariaren inguruan susmo txarrak baino gehiagorekin. EAJ-PNV-k behin eta berriz errefusatu zituen Isabel Celaá-ren Sailak ezarritako murrizketak, baina eurek ere bide beretik jarraitzen dute; murrizketa gehiago murrizketen gainean. Honetaz baliatuz, sektoreko patronalek langileen gain ezarri nahi dute murrizketa.

Hala, STEE -EILASek gogor salatzen du jarraitasun-sariaren balizko desagerpena eta dei egiten die sektoreko beste sindikatuei horren kontrako beharrezko neurriak hartzeko.

### **Hezkuntzan STEE-EILAS**

<b>ARABA:</b> Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	<a href="mailto:araba@stee-eilas.org">araba@stee-eilas.org</a>
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	<a href="mailto:bizkaia@stee-eilas.org">bizkaia@stee-eilas.org</a>
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	<a href="mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org">gipuzkoa@stee-eilas.org</a>
<b>NAFARROA:</b> Descalzos, 72 (Ionja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	<a href="mailto:nafarroa@stee-eilas.org">nafarroa@stee-eilas.org</a>